

## Herritarrekin konektatutako komunikazioa



Duela bederatzi egun egin genuen *Komunikazioa eta Teknologia KoLaboratorioaren* lehen saioa, komunikazio-estrategia bat diseinatze aldera, eraikuntza kolektibotik abiatuta, Iruñeko herritar aktiboekin konektatu eta, aldi berean, haien behar eta interesei erantzuna emateko. [KoLaboratorio](#) honetako emaitzak aztertu eta kontuan hartuko dira [Udalaren Herritarren Partaidetzako erregelamendu](#) berria idazteko egingo den prozesu partizipatiboan.

Saioari hasiera emateko, Herritarren Partaidetzako Alorreko teknikari **Ana Etxalekuk** azaldu zituen Alorraren funtzionamendua, helburuak, zerbitzuak eta proiektu hau sortzeko testuingurua. Jarraian, Komunikatik-eko lantaldeak [aurreko saioaren](#) laburpena egin eta proposatu zuen berriro heltzea “Aldaketaren lau gelak” metodologiari, komunikazioari dagokionez *zaindu, utzi, argitu eta probatu* beharreko alderdietan sakontzeko. Dinamikari ekin aurretik, herritarrei tokiko administrazioa hurbiltzeko komunikazio-estrategiak erabiltzeko beste proiektu bat ezagutu genuen: [BilborockLab](#), gazteei entzuteko eta Bilborock (komentua izandakoa eta kontzertu-areto bihurtua) aretoko erabilera- eta jarduera-proposamen berriak txertatzeko prozesu partizipatiboa, Bilboko Udaleko Gazteria Sailak bultzatuta.

[Aurreko saioan](#) egindako ekarpenetan honako eskaera hauek aurkeztu ziren: komunikazio analogikoa zaintzea zein webgunea hobetzea, helburuak argitzea, interkonektioa beste Alor batzuekin, [Erabaki](#) elkartei irekitzeko aukera, informazioa errepikatzeari uztea, Flickr sare soziala uztea, Instagram probatzea eta Alorrak aldizkako “webinar” edo bideokonferentziak egitea gai jakin

batzuk azaltzeko, eta ez probatzea berehalako mezularitza. Horiei gehitu zitzaizkien elkarte-ehuna prozesu partizipatiboen komunikazioan indartzeko garrantzia eta egungo euskarri nahiz markak ordenatzea.

Hasteko, komunikazio-estrategia bat landu genuen, bost bloketan ordenatutako panel baten bitartez, zehazteko zeintzuk izan behar duten Herritarren Partaidetzako Alorrarekin lotutako etiketek, ezaugarriek edo balioek. Oso ideia interesgarriak partekatu ziren, besteak beste partaidetzako marka baten beharra herritarren dibertsitatea islatzeko, marka kolektibo bat, belaunaldiartekoa, genero-perspektibarekin, eta gune publiko eta komunetan parte hartu nahi duten herritarrek berezkozat hartuko dutena. Halaber, azpimarratu egin da eginkizun loteslea eta sarea eraikitzeak, betiere horizontaltasunetik abiatuta, bai eta entzutea, feedbacka, gardentasuna, konfiantza nahiz argitasuna ere aintzat hartuta, igortzen diren mezuez bezainbatean.

Eztabaidan ekarpen eta gako positiboak helarazi ziren: “zertarako” delakoa lantzea, komunikazioaren asmoa; komunikazioaren helburu errealistak finkatuko ditugu, epe labur eta ertainean, “Aldaketaren lau gelak” metodologian jasotako hausnarketei men eginda. Lantaldeek honako helburu orokor hauek ezarri zituzten:

- **Marka.** Marka baten nortasuna indartzea, aipatutako ezaugarri horiek islatuko dituen, eta herritarrei hurbiltzea erraztuko duena. Xedea da marka bat diseinatzea, barne hartzeko hala Alorra nola [Erabaki](#) plataforma.
- **Zabalpena.** Informatzea, ezagutzera ematea prozesuak, emaitzak, horien eragina, baita gertatzen ari denaren kontaketa.
- **Komunitatea eraikitzea.** Herritarrak inplikatzeko eta herritarren artean banatutako komunikazio bat bultzatzea.

Jarraian, helmuga-hartzaileak segmentatzeari ekin eta pentsatu genituen zer segmentazio-aldagai erabili behar genituen (elkarteak eta kolektiboak, hezkuntza-sektorea, gazteen esparrua, interesguneak, komunikabideak, eta abar), baita hartzaile horiekin komunikatu ahal izateko beharrezko kanalak (besteak beste, kartelak, informazio-liburuxkak, komunikabideekiko lankidetzak, udal-irratia, posta elektronikoa, albiste-buletinak, webgunea eta sare sozialak).

Eta horraino iritsi ginen. Hirugarren eta azken saioan egindakoa berrikusi eta gure indarrak bideratuko ditugu aurreko saioetan plazaratutako helburuei erantzuna emateko komunikazio-ekintzak diseinatzera.

***KoLaboratorio*** honetan parte hartu ez baduzu, oraindik garaiz zabilta, azken saioa martxoaren 1ean izango baita, 18:30ean, Zentron.